



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA<**

**2015eko
MEMORIA**



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA**

2015eko
MEMORIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA<

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 Andoain
Tel.: 943 592 556

Luzarra Kalea 10
48014 Bilbo

kluster@soziolinguistika.eus
www.soziolinguistika.eus
www.facebook.com/slklusterra
<https://twitter.com/slklusterra>



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA

OHOREZKO BAZKIDEA




EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK

	EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila		BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea
	EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila		Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
	EHU-UPVko Soziologia II Saila		Gipuzkoa Donostia Kutxa
	Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea		Laboral Kutxa
	Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (HUHEZI)		Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETELE)
	Eusko Ikaskuntza		Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
	Euskal Herriko Ikastolak		Hernaniko Udala
	ELHUYAR Aholkularitza		Sakanako Mankomunitatea
	ARTEZ Euskara Zerbitzua		Zumaiaiko Udala
	EMUN Kooperatiba		Bermeoko Udala
	Ebete Hizkuntza Zerbitzuak		Erandioko Udala
	AZTIKER Ikerguna		Donostiako Udala
	URTXINTXA kalitatezko herritarak		Errenteriako Udala
	Topagunea. Euskara Elkarleen Federazioa	NORBANAKO BAZKIDEAK: 93	





Aurkibidea

SOZIOLOGIA KLUSTERRA: ERAKUNDE BAZKIDEAK	5
SARRERA	8
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN ANTOLAKETA	9
Antolaketa-eredua: Klusterra	9
LAN ARLOAK	10
LANKIDETZAK	11
PROIEKTUAK	12
IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA	13
1. Arrue (Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilera)	13
2. Liderrak eredu	15
3. Aldahitz (hizkuntza ohituren aldaketa)	17
4. EAS (Euskararen adierazle sistema)	18
5. Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak	20
6. Bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)	21
7. Jendaurrean erabili	22
8. BERBEKIN programa: ahozko hizkuntzaren sustapena ikasgelan	23
9. Hitanoa sustatzeko proiektua: Azpeitia eta Zumaia	26
EZAGUTZAREN KUDEAKETA	27
1. BAT Soziolinguistika Aldizkaria	27
2. Hausnartu. Euskal Soziolinguistika sariak	29
3. Formazio saioak	31
4. AZPIMARRA saioa (ETBI)	32



Soziolinguistika Klusterra Elkartea: aurrera begira

U rte hau benetan aberatsa eta aldaketaz bete izan da Soziolinguistika Klusterrarentzat. Erakundea sendotu egin da administrazio publikoekin ditugun harremanak indartu egin direlako. Horren erakusgarri dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin eta Hezkuntza Sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako aurrerapenak. Alde batetik elkarlana areagotzea lortu da erakunde hauekin eta bide horretatik finantzazioa ere egonkortu egin da.

Ziklo estrategikoaren azken urtea izanda, proiektu estrategiko berezi bat landu da 6. ildo estrategikoaren barruan, hain zuzen ere Erakundearen izaera eta egituratzeari buruz hausnartzea, erabakitzea eta gauzatzearen barruan. Bazkideen artean hausnarketa egin dugu geure buruari jarri diogun misioari erantzuteko egitura egokiena zein den erabakitzeko. Azken erabakia hartzea ez garenez iritsi, hurrengo ziklo estrategikoan ere gaia lantzen jarraitu beharko dugu.

Ziklo estrategikoaren azken urtean soziolinguistika klusterraren izaera eta egituraren ildo estrategikoari garrantzia berezia eman nahi izan diogu. Gure misioa-

ri ahalik eta modu egokienean erantzuteko gaur egun daukagun egituraren inguruan hausnarketa egitea beharrezkoa da. Bide horretan, etorkizuneko egiturari buruzko txostena osatu da eta bazkide guztiekin kontrastatu. Ildo estrategiko honetan lanean jarraitu beharko dugu hurrengo ziklo estrategikoan ere.

Gainera, txosten honetan azaltzen diren proiektu guztiak landu dira, aurreko urteetan egindako lanari jarraiki, bulegoko lantaldearen, bazkideen, administrazio publikoen eta unibertsitateen partaidetzarekin. Proiektuen artean aipagarria da DSS2016ren testuinguruan lantzen hasi den Hitzargiak proiektua. Berezia da, alegia, proiektu horrek duen bolumenagatik eta nazioartean eta Euskal Herrian izatea espero dugun eraginagatik.

Beste alde batetik, aldaketa urtea izan da 2015ekoa Soziolinguistika Klusterrean. Izan ere, zuzendari eginkizunak utzi egin ditu Ibon Usarralde eta Imanol Larreak ekin dio zeregin horri.

Eskerrak, beraz, erakunde honen ahaleginetan partaide izan zaituztegun guztioi.

*Olatz Olaso
Lehendakaria*



Soziolinguistika Klusterraren ANTOLAKETA


ANTOLAKETA-EREDUA: KLUSTERRA

Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkartea da eta aldi berean, Berrikuntzako Bitarteko Erakundea izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa. Hain zuzen ere 2015ean aurrerapauso handia egin da ZTBESeko partaidetza berritu egin baita.

Klusterrak izaera ezberdina duten entitateak lotzen ditu elkarren artean: herri-erakundeak, unibertsitateak, gizarte-eragileak eta esku-hartze eragileak. Guztiek dute helburu euskararen biziberritze-ahaleginean

ahalik eta modu eraginkorrean aritzea. Klusterrak lortzen du horrela interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen artean talde-lanak sendotzea eta sinergiak sortzea.

Kooperazio-egitura horiek baliatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea du helburu Klusterrak eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea. Horregatik erakunde desberdinen artean eginiko proiektuek lehen-tasuna izan ohi dute gurean.



Olatz Altuna
Uxo Anduaga
Olatz Bengoetxea
Isabel Godínez
Maialen Iñarra
Pablo Suberbiola
Belen Uranga
Josune Zabala
Ibon Usarralde / Imanol Larrea

Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintza Eskola)
Arritu Zelaia, Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzuak)
Nekane Goikoetxea, Nekane Arratibel (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea)
J. Inazio Marko (Eusko Ikaskuntza)
Mertxe Mujika (AEK)
Olatz Olaso (Emun Kooperatiba)
Ana Labaka, Oihana Garcia (Elhuyar Aholkularitza)
Aritza Eskandon (Euskaltzaleen Topagunea)
Ibon Usarralde / Imanol Larrea (Idazkaria)



Lan arloak

Soziolinguistika Klusterra soziolinguistikaren jakintza eremuan kokatuko dela aitortzea eza da nahikoa bere jarduna norabide egokian bideratu nahi bada. Soziolinguistika jakintza arlo zabala baita bere baitan biltzen dituen eremuei dagokionez.

Zabaltasun horretan, hizkuntzak gizarte gertaera gisa ulertzeko soziolinguistikaren prismatik egin daitezkeen ekarpenez gain oso kontuan hartzekoak iruditzen

zaizkigu zientziaren beste diziplina batzuetatik egin daitezkeen ekarpenak ere. Hala nola, gizarte-antropologiatik, gizarte-psikologiatik, pedagogiatik, filologia eta hizkuntzalaritzatik eta komunikazio zientzietatik. Ondorioz, diziplina horien ekarpenek ere zentzua dute Klusterrak garatu nahi dituen proiektuetan, beti ere, hizkuntzak gizarte-gertaera gisa ulertu asmoz. Diziplina horiekiko zubiak eraikitzea beraz, beharrezkoa eta lagungarria izango da Klusterraren jardunean.

Bost lan-arlo hauek jorratu dira Klusterraren lehentasunezko arlotzat:

- 1. Hizkuntza-ukipeneko soziolinguistika dinamikoa.**
- 2. Hizkuntza-erabileraren alderdi soziala.**
- 3. Hizkuntza-jokaeren aldaketa-prozesuak.**
- 4. Hizkuntzen transmisio soziala.**
- 5. Hizkuntzen inguruko diskurtsoak, balioak eta jarrerak.**






Lankidetzak

Soziolinguistika Klusterrak bere proiektuak eta estrategiak garatzeko hainbat lankidetzak hitzarmen sinatu ditu. Honako hauek dira lankidetzak hitzarmen nagusiak:

- > Euskal Herriko Unibertsitatearekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > Euskaltzaindiarekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > HABE liburutegiarekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > Langunerekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > Xarxa Cruscat-ekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > Bergarako Udalarekin "Gazteak eta ahozkotatasuna" egitasmoa abian jartzeko hitzarmena.
- > Kutxa Gizarte Ekintzarekin euskararen normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzeko eta zabaltzeko hitzarmena.
- > Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekiko oinarrizko lankidetzak hitzarmena.
- > Mondragon Unibertsitateko EKOMU masterrarekin "Esku-hartze eleanitza" materia emateko hitzarmena.





PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

- 1 **ARRUE (ikasleen eskola giroko hizkuntzen erabilera)**
- 2 **Liderrak eredu**
- 3 **Aldahitz (hizkuntza-ohitura aldaketa)**
- 4 **EAS (euskararen adierazle sistema)**
- 5 **Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak**
- 6 **Bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)**
- 7 **Jendaurrean erabili**
- 8 **BERBEKIN programa: ahozko hizkuntzaren sustapena ikasgelan**
- 9 **Hitanoa sustatzeko proiektua: Azpeitia eta Zumaia**

EZAGUTZAREN KUDEAKETA

- 1 **BAT Soziolinguistika aldizkaria**
- 2 **Hausnartu - Euskal Soziolinguistika Sariak**
- 3 **Formazio saioak**
- 4 **AZPIMARRA saioa**



PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Soziolinguistika Klusterraren misioa soziolinguistika ezagutza sortzea da. Horretarako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak egiten ditugu arloko irakasle, ikerlari, adituen eta bazkideen zuzendaritza edota lankidetzarekin. Modu horretara, unibertsitatearen eta gainerako eragileen arteko zubi lana egitea nahi dugu.

1

ARRUE (IKASLEEN ESKOLA GIROKO HIZKUNTZA ERABILERA)

Zuzendaria: Iñaki Martinez de Luna
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
(p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Badira dagoeneko hamabi urte Arrue Proiektua sortu eta abian jarri genuenetik, hain zuzen ere ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilera aztertzeko.

2015-2016 ikasturteko lan-ildo nagusiak

Sei izan dira 2015-2016 ikasturtean lehentasunez lantzeko ildoak:

1. Ebaluazio Diagnostikoa 2015 – Datuen analisia
2. 2013ko Arrue datuen argitalpena eta zabalkundea (2011-2013)
3. Tipologien gaineko analisia
4. 2015eko Arrue datuen argitalpena eta zabalkundea (2011-2013-2015)
5. Erabilera-datuen analisiaren eta hezkuntzako planen arteko lotura
6. Hezkuntza komunitatearen formazioa eta dibulgazioa

Babesleak:



Lankidetzak:



Lan-ildoen deskribapena eta ikasturteko lanak

1. Ebaluazio Diagnostikoa 2015 – Datuen analisia
 - 2015eko udaberrian, hirugarren aldiz jaso dira Ebaluazio Diagnostikoa probaren baitan LHM4ko eta DBH2ko ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzko datuak. Analisisietarako abiapuntua eta oinarria, proban jasotako datu guztiekin ISEI-IVEIk osatutako datu-baseak izan dira.
 - 2015eko datuek, lehen aldiz, ikasleen hizkuntza erabileraren *azterketa longitudinala* egiteko aukera eskaini dute, 2011n LMH4n zeuden ikasleak 2015ean DBH2n aritu baitira.
 - Datu horien gaineko analisia izan da ikasturteko egiteko nagusietako bat eta 2015eko abenduan eman zaio hasiera 2016ko maiatzean bukatzeko.
2. 2013ko Arrue datuen argitalpena eta zabalkundea (2011-2013)
 - 2014-2015 hitzarmenaren baitan 2013ko Arrue datuen argitalpenerako euskarazko eta gaztelaniazko testuak landu ziren arren, argitalpen eta zabalpen publikoa ez zen egin.
 - Bestalde, aurreko hitzarmenaren baitan landu da 2011 eta 2013ko datuetan oinarrituz "Tipologien gaineko analisiaren" lehen oinarria ere.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

- Bi lan hauekin bat egin da, euskaraz eta gaztelaniaz emaitza eta ondorio nagusien berri ematen duen argitalpen bat prestatuz.
 - Argitalpen eta zabalkunde horren prestaketa lanak ikasturtearen lehen hiru hilabeteetan egin dira (2015 iraila-azaroa) eta lanaren zabalkundea 2016an egingo da.
- 3. Tipologien gaineko analisiak**
- 2014-2015 hitzarmenaren baitan eman da analisi hauen lanketan lehen urratsa, 2011 eta 2013an bi ikasmailetako talde guztien azterketa eginaz, eta hizkuntza-erabileran duten aldakortasunaren azterketatik tipologiak eratuz. Lehen urrats honek jarraipena izan du 2015ean.
 - 2015eko tipologien analisiak jasotzen dituen txostena Jarraipen Batzordean partekatu eta berretsi da.
 - Bigarren egiteko garrantzitsua tipologien gaineko analisisen garapena eta 2015eko Ebaluazio Diagnostiko datuei aplikatzea izan da. Tipologien bidezko lanketak analisisetarako aukera berriak zabaltzen ditu. Aukera horietan lehentasunezkoztat jo direnak garatu dira, batetik, 2011 eta 2013ko datuetan oinarrituta. Eta bestalde, analisi horiek aplikatu zaizkie 2015ean jasotako datuei ere.
 - Hirugarren egitekoa ikastetxe eta taldeen ezaugarrien azterketa xeheagoa izan da. Tipologien bidezko azterketak erabilera aldetik nabarmentzen diren talde eta ikastetxeak identifikatzeko aukera ematen du, kode mailan. Bestalde, ISEI-IVEIn eta Hezkuntza sailean dagoen informazioarekin, aukera zabaltzen da erabilera aldetik interes berezia duten taldeen ezaugarri xeheagoetan arakatzeko, besteak beste, etorkizuneko erabilera-planak hobeak eta eraginkorrak izateko bidean (ikus, horretaz, beherago, 5. lan-ildoa).
- 4. 2015eko Arrue datuen argitalpena eta zabalkundea (2011-2013-2015)**
- 2015eko datuen analisiaren hurrengo urratsa, Ebaluazio Diagnostikoaren argitalpena prestatzea izan da.
 - 2016ko ekainerako, 2015eko emaitzak eta 2011-2013-2015 bilakaeraren azterketa jasotzen duen argitalpenaren prestaketa lanak egingo dira.
- 5. Erabilera-datuen analisiaren eta hezkuntzako planen arteko lotura**
- Beste helburu bat ere badugu: hezkuntza arloan hizkuntza-ezagutza eta erabilera aldetik helburuak finkatzeko garaian, eta horietara iristeko hartu beharreko neurriak diseinatzeko garaian, informazio baliagarria eta orientazioa eskaintzea hezkuntza komunitateari.
 - Horretarako lanak hiru norabidetan garatu dira:
 - Hizkuntza-erabileraren datuak eta oinarritzko alderaketak eskainiz ikastetxe bakoitzari.
 - Hezkuntzako planetan finkatzen diren helburuen araberrako lanketa egin da.
 - "Tipologien gaineko analisisen" bidezko lanketa egin.
- 6. Hezkuntza komunitatearen formazioa eta dibulgazioa**
- Ikasturtearen lehen zatian (Gabonak arte) formazio-premia zehatzak eta

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

horiei erantzuteko modu egokiak irudikatu dira. Ondoren, adostutako formazio-egitasmoa gauzatuko da, horretarako behar diren saioak eta lanak eginaz.

> Informazio gehigarria: <http://www.soziolinguistika.eus/arrue>

Zuzendaria: Daniel Hermosilla
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
(p.suberbiola@soziolinguistika.eus)
eta Belen Uranga (b.uranga@soziolinguistika.eus)

2 LIDERRAK EREDU

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Lankidetzak:



Hizkuntza normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakunde publiko eta pribatuak euskararen erabilera-erakunde oztropoei aurre egiteko asmoz **"Euskararen erabilera-planak eta liderren portaera eredugarriak erakunde testuinguruan (ERALAN 4)"** izeneko egitasmoa diseinatu zen 2014ko amaieran. Egitasmo honek 2015ean eta 2016an bi fase desberdin garatzea aurreikusten zuen. Batetik, ikerketa fasea (2015). Bestetik, ikerketan lortutako emaitzen inguruan hausnarketa egin eta aurrerantzean erakundeetan euskararen erabilera bermatzeko egin daitezkeen jarduerak edo ekintzak irudikatzen hasteko fase sortzailea (2016).

Eralan 4 egitasmoa garatzeko unean, erakundeetan euskararen erabilera sustatzea, dauden planetatik abiatuta, eta honetan lidergoaren garrantzia batera kontsideratzeko, ikerketa irudikatzeko ikuspegi sistemikoa edo integrala aplikatu genuen. Lidergoarekin batera, beraz, elementu gehiago ere kontuan hartu ziren, esate baterako, erakundearen kultura.

Soziolinguistika Klusterrak eta EHUKo ikerketa taldeak adostuta, bakarrik ikerketa kuantitatiboa egitea erabaki zen. Honetarako, ikerketan erabili beharreko neurketarako tresna sortu edota egokitu behar zen lehenengoz. Neurketarako tresnak (euskaraz eta gaztelaniaz; eta tresna informatizatu *on-line* erabiltzeko) osatzen ziren bitartean, laginketarekin lotutako zereginei ekin genien Soziolinguistika Klusterrak eta EHUKo ikerketa taldeak.

Ikerketaren ikuspegitik helburu nagusia ahalik eta laginik handiena lortzea izan zen ondorio esanguratsuak edo adierazgarriak lortzeko. Honek eraman gintuen definitzera enpresa (publikoak eta pribatuak) eta instituzioak, eta jardura sektoreak (industria, administrazio publikoa, zerbitzuak eta kooperatibak). Planteamendu honekin, eta konbinaketak eginez, laginaren tamaina 18-20 enpresakoa aurreikusi genuen.

Proiektuaren prozesu honetan gertatutakoak identifikatu ondoren, hauek eraman gaituzte 2015eko helburuak berriro kontsideratzera eta baita Eralan 4 egitasmoaren ere. Izan ere, aurreikusitako lanketa egin da eta tresnak sortu dira, baina gero ezin izan da erakundeetan datu-jasoketa aurreikusi bezala gauzatu.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Tresna aplikatzeko eragileek aipatutako zailtasunak

- Tresnaren tamaina.
- Tresna eta hizkuntza.
- Tresnaren eduki sentsibleak.
- Tresnaren erredundantzia.
- Tresna osatu izanagatik sari falta.

Zailtasun handiena eta proiektuaren funtsa, diseinatu bezala, kolokan jarri duena da topatutako erresistentzia arduradun edo kargudun pertsonen lidergoa ebaluatzeko unean. Zenbait erakunderen kulturen edo ohituretan horrelako neurketak egitea ez-ohikoa da. Arduradunek ez dute egoki ikusi tresna aplikatzea. Oro har, gure testuinguru sozioekonomikoan aldaketa, eraldaketa eta berrikuntzaren beharra aldarrikatzen duen diskurtsoa aski zabalduta dago, baina diskurtso horren aplikazio praktikoan askotan erresistentzia pertsonalak eta erakunde mailakoak (arduradunen bitartez adierazita) agertzen dira, aldaketarako aukerak blokeatuz.

Dena den, bada bide bat ikerketa berriro bideratzeko. Erabilera parte hartzen duten aldagai psikosozial anitz aztertu beharrean, fokua bakar batean jartzea komeni dela ebatzi dugu, aurrerago azaltzen den moduan.

Egindakoaren emaitzak

Gizarte-psikologia eta Portaera-zientzien Metodologia eta Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Sailetatik, Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean, eta *Euskararen erabilera-planak eta liderren portaera eredugarriak erakunde testuinguruan – ERLAN 4 (2014-2015)* egitasmoan oinarrituz, urte beteko epean egindakoak hauek dira:

Neurketa tresna: *Euskararen Erabilera eta Erakunde Faktoreak Aztertze Galdetegia (1.0 bertsioa – 2015eko azaroa)*. Tresnaren elementuak hauek dira: Datu sozio-demografikoak, Hizkuntza-Erabilera eta Erakunde-kontingentziak, MLQ (*Multifactor Leadership Questionnaire*), OCTO (*Orientación al Cambio y Transformación Organizacional*), EEEIL (Euskararen Erabileraren Eskaerak eta Igurikimenak Lanpostuan), OCAI (*Organizational Culture Assessment Instrument*). Tresna erabiltzeko prest bukatu egin da. Baina, OCAIren kasuan izan ezik, itzulpena egin denez, balidazio prozesua ez da burutu. Beraz, hau egin beharko litzateke lehen aldiz aplikatzen denean. Sortutakoaren jabetza intelektuala dela eta, finkatzeke dago erabilpen eskubideak bermatzeko protokoloa.

Tresnen sorrerarekin batera, erakunde parte-hartzaileen (lagina) definizioaren egitekoak (erakunde ezaugarriak; tamaina, izaera, sektorea) aurrera eraman dira eta baita erakundeetan ikerketaren aurkezpene egiteko dokumentua ere.

3 ALDAHITZ (HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETA)

Zuzendaria: Pello Jauregi
 Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
 (p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Jarraian deskribatzen da 2015. urtean zehar proiektuan garatu dugun jarduera, bere lau atal nagusietan banatuta.

Aldahitz "Eusle" esperientziak:

2013an eta 2014an zehar egin ziren "Eusle" metodologian oinarrituriko lehen zazpi esperientzia edo aplikazio praktikoak, eta horien oinarriak, emaitzak eta ondorioak *Aldahitz ikerketa 2014* lanean eman dira argitara aurtengo martxoan.

2015. urtean zehar, argitalpenean jasotako oinarri horretatik abiatuta, esperientzia horiek zabaltzeko eta sozializatzeko estrategia landu da eta praktikara eraman, SLK-ko kide diren aholkularitzen bitartez: Ahize-AEK, Artez, Emun eta Elhuyar.

"Eusle" metodologian oinarrituriko Aldahitz esperientziak garatzeko sistema finanturik, 2015eko iraila eta abendua artean lau esperientzia garatu dira, honako erakundeetan (kasu bakoitzean adierazten da esperientziaren jarraipen teknikoa egin duen aholkularitza):

- Batz enpresa (Ahize-AEK)
- Lemoako Udala (Ahize-AEK)
- Oñatiko Udala (Elhuyar aholkularitza)
- Trafikoko Delegazioa (Donostia) (Elhuyar aholkularitza)

Esperientzia horien jarraipena egin da irailetik azarora. Horiek osatu dute 2015-2016 ikasturterako Aldahitz proiektuaren baitan Eusle metodologiarekin aurreikusiriko 15 esperientzien "lehen txanda". Bigarren txanda, berriz, 11 esperientzia garatzeko aurreikuspena duena, alegia, 2016ko urtariletik apirilera garatuko da. Bigarren txandako esperientziei begira, lokalizazio lanak egin dira aholkularitza enpresen bitartez, eta esperientzia horien jarraipen teknikoa egingo duten teknikariei formazioa eman zaie, 2015eko abenduan.

Uler-hizketa metodologia:

Urtean zehar, Aldahitz proiektuan hurrengo urrats gisa lantzen ari garen "Uler-hizketa metodologia"n jardun dugu.

Geroztik, urtean zehar metodologia horri buruzko lanketa egin da, hala nola 2016an zehar lehen aplikazio praktikoak egiteko plana definitu ere. Horrez gain, 2015eko urritik aurrera, hainbat aditurekiko kontsultak ere bideratu dira, besteak beste HABEko adituekin.

Argitalpena eta zabalkundea:

2014an ondutako *Aldahitz ikerketa 2014: Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan* izeneko lana 2015eko martxoan eman genuen argitara, ber-

Babesleak:



Lankidetzak:



PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

tsio elektronikoan soilik, eta sare bidezko zabalkundea egin genuen Soziolinguistika Klusterreko sare sozialak baliatuz (webgunea, Twitter eta Facebook).

Horrez gain, ikerketaren oinarriei eta emaitzei buruzko bi aurkezpen ere egin dira. Bata urtearen hasieran (urtarrilaren 29a), Klusterreko bazkideen mintegian, eta bestea amaieran (abenduaren 3an), Bangor Unibertsitateko nazioarteko sinposioan bi-deo-konferentziaz.

Aldahitz eta hezkuntza arloko egitasmoak:

Urtearen hasieran aurreikusita ez bazegoen ere, urtean zehar Aldahitz proiektuak, eta "Eusle" metodologiaren antzeko dinamikek, hezkuntza arloan izan dezaketen aplikazioaren inguruko lanketa bat egin da.

Euskal Girotze Barnetegietako zenbait irakasleren ekimenez ekin zitzaion lanari, eta urtean zehar, gutxienez lanketa bat egin da etorkizunean halako egitasmoek izan dezaketen bideragarritasunari eta beharko lituzketen egokitzapenei buruz. Tartean, 2015eko ekainaren 10ean, Pello Jauregi irakasleak formazio saioa eman zien barnetegietako irakasle zein Hezkuntza Sailean normalizazio egitasmoen inguruan lanean ari diren teknikari eta arduradun talde bati, Elgoibarko barnetegian.

> Informazio gehigarria: <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>

4 EAS (EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA)

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna
Koordinatzailea: Olatz Altuna
(o.altuna@soziolinguistika.eus)

Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) garapenean dihardugu. Egitasmo honen helburu nagusia euskararen egoera eta bilakaera jasotzea eta ezagutzera ematea da; gizartearen esparru desberdinetan hizkuntzak une jakin batean zein zabalkunde eta zein bilakaera duen zehatz-mehatz azaltzeko balio behar du.

EASen egitura eta edukia jasotzeko aplikazio informatiko bat sortu da. Aplikazioa baliagarria izan zaigu, besteak beste, EAS dituen lan-taldeen koordinazioa laguntzeko eta proiektuaren garapenean lan-tresna gisa baliatzeko. EASen egituraren oinarria *Jardunguneak* (Familia, Hezkuntza, Helduen euskalduntzea, Kultura, Administrazioa, Sozioekonomia, Jendarteko komunikazioa, Harreman informalak eta aisialdia...) eta *Ardatzak* izan dira (Gaitasuna, Erabilera, Erabilera Aukera, eta, Iritziak eta Jarrerak). Adierazleak egitura horren arabera aukeratu eta antolatu dira. Lehen aukeraketan 145 adierazle identifikatu dira, ondoren guzti horietatik 29 adierazle nagusi aukeratu dira. Aukeraketan, batez ere, bi irizpide hartu dira aintzat: adierazlearen inguruko datua izatea eta iturrien iraunkortasuna bermatua izatea.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Ondorengo irudian ikus daiteke EASen egituraren taula:

I. Taula: EAS-en egitura

JARDUNGUNEAK	A - Gaitasuna (8)	B - Erabiltzeko aukera (3)	C - Erabilera (14)	D - Iritziak eta jarrerak (1)	E - Bestelakoak (3)
+ 00 - ARDATZEN DATU OROKORRAK 	+ 2 adierazle	-	+ 2 adierazle	+ 1 adierazle	-
JABEKUNTZA-ADIERAZLEAK					
+ 01 - Familia 	-	-	+ 1 adierazle	-	+ 2 adierazle
+ 02 - Hezkuntza 	+ 1 adierazle	+ 1 adierazle	+ 2 adierazle	-	+ 1 adierazle
+ 03 - Helduen euskalduntzea 	+ 2 adierazle	-	-	-	-
HIZKUNTZA-ADIERAZLE OROKORRAK					
+ 04 - Administrazioa eta oinarritzko zerbitzuak 	+ 2 adierazle	-	+ 3 adierazle	-	-
+ 05 - Alor sozioekonomikoa 	-	-	+ 1 adierazle	-	-
+ 06 - Kultura 	-	+ 1 adierazle	+ 1 adierazle	-	-
+ 07 - Jendarteko komunikazioa 	-	+ 1 adierazle	+ 1 adierazle	-	-
+ 08 - Harreman informalak, parte-hartze soziala eta aisialdi antolatua 	-	-	+ 3 adierazle	-	-
ADIERAZLE SOZIODEMOGRAFIKOAK					
+ 09 - Soziodemografia 	-	-	-	-	-
MUNDU-MAILAKO TESTUINGURATZEA					
+ 10 - Euskara munduan 	+ 1 adierazle	-	-	-	-

EAS webguneko taula baten irudia

Adierazle guztien ezaugarriak fitxetan jaso dira. Hiru dira fitxa garrantzitsuenak. ITURRIEN FITXAn jaso da ondorengo informazioa: eragiketa arduraduna, he-
dadura, iraunkortasuna, maiztasuna, unibertsoa, oinarritzko unitatea, edizioak...
ADIERAZLEEN FITXAn jaso da: definizioa, konposatua ala bakuna den, kategoriak,
lanketa eta formulazioa... Eta, SARRERA DATUEN FITXAn jaso da: eskuragarritasuna,
egokitasuna eta galdera eta erantzunak.

Babesleak:



PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

5

HIZKUNTZEN AHOZKO KALE ERABILERA: HERRIETAKO NEURKETAK

Zuzendaria: Olatz Altuna
(o.altuna@soziolinguistika.eus)

Gero eta garrantzitsuagoa da, euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzerako orduan, horretarako aukera ematen diguten datuak izatea. Datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurria.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik beste bost aldiz errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an eta 2011n. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. EKB erakundea (Euskal Kulturaren Batzarreak) 1998an desagertu ondoren, SEI elkarteak (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen) hartu zuen bere gain EHko Kale Neurketa egitearen ardura. Ondoren, SEI elkartearen lekua Soziolinguistika Klusterrak bete zuen 2004. urtean. Aurreko neurketen metodologia eta esperientzia oinarri hartuta Soziolinguistika Klusterrak 2011n Euskal Herriko Kale Erabileraren VI. Neurketa egin zuen. Orain bost urteko maiztasuna duenez, neurketa 2016an errepikatuko da.

Oinarri metodologiko hori baliatuz, Soziolinguistika Klusterrak herri mailako neurketa bereziak eskaintzen ditu zerbitzu modura. Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko lana. Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

2015ean honako herri hauetako kaleetan neurtu dugu ahozko erabilera: Tolosa, Pasaia, Asteasu, Segura eta Baztan. Horietatik azken hirurak mugikor bidez egin dira. Tolosako neurketan bost adin talde neurtu dira aurrenekoz: helduen adin multzo handia bitan banatu baita, heldu gazteak (25-34) eta heldu zaharrak (35-64).

> Informazio gehigarria: http://www.soziolinguistika.eus/herrietako_neurketak

6 BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011)

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziolinguiстика.eus)

Babeslea:



Euskararen egoera soziala zertan den, zein bilakaera izan duen eta aurrera begira zein erronkari heldu behar zaion aztertu eta jaso nahi du egitasmo honek. Jakina da iritzi edota gaiari heltzeko arretagune/une ezberdinak izango direla, batzuen edo besteen ustez. Baina, hori guztia kontuan izanda, oinarri zientifiko eta landu bat eskainiko duen irakurketa partekatu bat osatzea garrantzitsua dela deritzogu. Batetik euskararen bilakaeraren deskripzio sendo eta aberats bat izateko, eta bestetik, horren laguntzaz euskararen biziberritzean aurrera begirako erronkei modu eraginkoragoan erantzun ahal izateko.

Horretarako, labur esanda, esparru eta ikerketa-lerro ezberdinetatik datozen adituak jarri ditugu lanean, eta beraien ekarpenetatik abiatuta atzera eta aurrera begirako irakurketa osatu. Prozesu bat irudikatu dugu horretarako. Prozesu horren azken emaitza argitalpen bat izango da, eta erdibidean Soziolinguiстика Jardunaldia egingo da: bertan aurkeztuko dira adituen iritzi eta ekarpenen lehen oinarria, eta ondoren egingo da azken argitalpena arteko bidea.

Egitasmo honen helburu nagusia da 2016ko Inkesta Soziolinguiistikokoaren eta Euskal Herriko Kale Erabileraren VII. Neurketaren atarian gauden honetan, aurreko hiru hamarkadetako bilakaera soziolinguiistikoa aztertzea (1981-2011) eta hortik aurrera begirako erronkak proposatzea hiru ardatzetan: *hizkuntza-gaitasunean*, *hizkuntza-erabileran* eta *iritzi eta jarreretan*. Bi egiteko nagusi ditugu:

- Bilakaeraren deskribapen bat osatzea, aipatutako hiru ardatzetan oinarrituta.
- Aurrera begirako erronkak identifikatzea, bi eremutan bereziki: hizkuntza-plangintzaren arloan eta ikerketarenean.

Azterketaren arreta-gune nagusia da batetik, hiru ardatz horietan hiru hamarkadatan (1981-2011) izandako lorpen nagusiak identifikatzea eta bestetik, datozen 10-20 urteetarako erronka nagusiak identifikatzea.

Hiru zuzendari ditugu, arreta-gune edo ardatz bakoitzeko bat:

- Hizkuntza-gaitasunaren ardatza: Iñaki Martínez de Luna
- Hizkuntza-erabileraren ardatza: Mikel Zalbide
- Iritziak eta jarrerak: Xabier Erize

Adituek egindako txostenek *oinarrizko txostena* osatzen dute. Hiru ardatzetan landutakoari buruzko iritzia emango dute ondoren ekarpenegileek. Oro har, zuzendarien oinarrizko txostenetan oinarrituta "Zertan zaude ados eta zer osatu behar da?" galderari erantzun beharko diote. Gainera, 2016an gaiari buruzko jardunaldia egingo da eta gero argitalpenak plazaratuko dira: BAT Aldizkarian txosten nagusi horiek eta erantzun artikulatuak bi zenbaki monografikotan (99. eta 100. zenbakietan), eta hiru txostenen laburpenak prestatuz hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez)

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Zuzendaria: Eduardo Apodaka
 Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
 (p.suberbiola@soziolinguistika.eus)
 Lankideak: Idurre Eskisabel eta Uxo Anduaga
 (u.anduaga@soziolinguistika.eus)

7 JENDAURREAN ERABILI

Proiektu honen xedea da jendaurreko komunikazioan euskara gehiago, hobeto edo eraginkorrago erabili nahi duten erakunde eta eragileei laguntzeko eta jardun hura errazteko bide eta bitartekoak antolatzea. Horretarako, praktika komunitate bat abiaraziko da eragileen elkarlaguntza bideratzeko, hain zuzen ere, elkarrengandik ikasteko eta esperientziak partekatzeko gune aktiboa izango da.



Jarraian, proiektu honetan eginiko lanei buruzko oharra eskaintzen dira.

Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lankidetzak:



Proiektuaren definizioa eta egokitzapenak:

Proiektua 2015ean aurkezturiko definiziotik abiatu zen, eta geroztik, behin ikerketa-taldea osatuta, abiapuntuzko definizio hori egokitu egin da.

Ikerketa-taldea:

Proiektuaren lehen lanketa, Soziolinguistika Klusterraren eskariz, Eduardo Apodaka irakasleak osatu zuen, eta ondoren lanetako bat ikerketa-taldea osatzea izan da. Maiatzean definitu zen ikerketa-taldea, eta hau da bere osaketa:

- Eduardo Apodaka (UPV-EHU). Zuzendaria
- Idurre Eskisabel (UPV-EHU)
- Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)
- Uxo Anduaga (Soziolinguistika Klusterra)

Behin osatuta, ekainaz geroztik ikerketa-taldeko bileren bitartez definitu eta landu dira proiektuaren lan-ildoak.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Talde nuklearraren osaketa:

Proiektuak 2016ko ekainera bitartean aurreikusiriko hiru "Ekite-ildo" edo faseetatik, lehena 2015eko azarotik 2016ko otsailera artean garatuko da, eta Talde nuklearra izango da horren protagonista.

Maiatzetik azarora bitarteko prozesua izan da talde horren osaketa. Definizioa lehenik, erakundeei proposamenak eta haiekiko harremana ondoren eta azkenik "Eraketa-ekitaldia" bera, taldearen jardunari hasiera eman diona (azaroaren 27an egin zen, Bilbon).

Formazio saioak:

Proiektuak lehen fasean hiru lan batera egitea aurreikusten du: batetik, praktika komunitatearen eraketa bera, bestetik ikerketa, eta horrekin batera, talde nuklearra osatzen duten erakundeetako ordezkariak formazioa ematea.

Formazio horren definizioa landu da lehenik, ondoren, formazio hori emango duten irakasle eta adituekiko harremanak landu dira eta azkenik formazio-saioak martxan jarri. Lehen saioa 2015eko abenduaren 11an egin da, Eibarren UEUK duen Markeskooa jauregian.

Zuzendaria: Ines Garcia-Azkoaga (UPV/EHU)
Koordinatzailea: Josune Zabala
(j.zabala@soziolinguistika.eus)
Partaideak: Aranzadi Ikastola, Ipintza
Bergarako Institutua, Mariaren Lagundia
Ikastola, Bergarako Udala

8

BERBEKIN PROGRAMA: AHOZKO HIZKUNTZAREN SUSTAPENA IKASGELAN

Babesle eta
laguntzaileak:



Bergaran berbazko komunikazioa indartzeko programari ekin zitzaionetik (2014) iragan da bigarren urtea. "Edozein irakasle da hizkuntza irakasle" oinarritzko pentsamendutik eskoletan ahozko komunikazioa indartu dadin ari gara ekintza-ikerketa bideratzen edozein arlotako irakasleekin elkarlanean, zehazki, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko irakasleekin.

Hain zuzen ere, 2013an Soziolinguistika Klusterrak Bergarako nerabeen partaidezarekin egindako ikerketaren emaitzetako bat izan zen euskara erabiltzetik gaztelania erabiltzerako urratsik nagusia gertatzen zela adin tarte horretan, eta hezitzailearen gertutasun-urruntasunak baldintzatzen zuela gehienetan hizkuntza erabilera: hezitzailearen presentzia zenbat eta txikiagoa, orduan eta gaztelaniaren presentzia handiagoa. Eta bide batez, zenbat eta testuinguru informalagoak, orduan eta gaztelaniaren presentzia handiagoa.

Hala, testuinguru informalak eta adin tarteak uztartzen zituen ikerketa egitea adostu zen. Ekintza-ikerketa eta irakasle guztien formazioa bideratuko zituen programa bat non borondatezko irakasleek parte hartuko zuten zuzenean ekintza-ikerketan eta gainerakoek jasoko zuten ikerketan sortutako ezagutza berria hartarako prestatutako formazioarekin. Ulertuz, testuinguru informal gehienak sortzen zirela Gorputz

PROIEKTUAK**IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA**

Hezkuntzako saioetan, ikasgai honetako irakasleek ziklo guztietan eta hizkuntzak-koak ez ziren edozein irakasleek parte har zezan proposatu zen.

BERBEKIN programaren aurkezpena, Bergaran



Helburutzat jarri zen aztertzea zein aukera ziren eremu akademikoan, gelan edo gela-rik kanpo, irakaslearen esku hartzearen bitartez euskara gehiago eta hobeto egin zezaten ikasleek. Horretarako, beharrezko ikusi zen arlo ezberdinetan ikaskuntza-i-rakaskuntza jardueratan zer gertatzen zen jakitea. Behaketa bidezko metodologia baliatuz, saio ezberdinak grabatu ziren bideoz: oro har, ikastetxe bakoitzean Lehen Hezkuntzan bi arlotako bi saio eta DBHn beste bi arlotako bi saio (ikastetxe baten DBHko arlo bateko 2 saio). Hizkuntza arloetako irakasleak izan dira ikerketa honen protagonistak. Guztira, 18 ordu (8 ordu Lehen Hezkuntzan eta 10 ordu DBHn).

Grabaketa horiek aztertu egin dira 2015 urtean (transkripzioak egin eta ikuspegi sozio-diskurtsibo eta didaktikotik aztertu), eta lanketa horretan eraiki den ezagutza eskaini da ikastetxeetan eman den formazioaren bitartez. Horrez gain, grabaketa horien ebaluazio-jarduerak egin dituzte irakasle partaideek (konfrontazio jarduera [banaka] eta konfrontazio gurutzatua [taldean]), eta bertatik sortutako ezagutza ere gorde da formazioan jarraipena emateko.

2015eko egiteko nagusia izan da, bereziki, 2014an atzean utzitako egitekoak erre-kuperatzea (corpus analisia eta transkripzioak), eta urte honetarako aurreikusita zeuden egitekoak bideratzea.

Hala, honako irudikapena izan du 2015eko lan-jarduerak:

Kudeaketa eremua:

- Erakundeekin harremanak lankidetzat hitzarmena bideratzeko.
- BERBEKIN programaren aurkezpena.
- Jarraipen Batzordean egindako eskaera landu: ahozkoaren presentzia eskolan.
- EHUrekiko hitzarmenari jarraipena.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Ikerketa eremua:

- Eskoletan: irudi baimenak, datu soziolinguistikoak, grabaketak...
- Jasotako corpus guztiaren antolaketa, irizpide bilaketa eta transkripzioak.
- Corpus analisia eta emaitza bilaketa: esku hartze tipoak.
- Konfrontazio jarduerak.
- Formazioa ikastetxe guztietan.

Ondorio laburrak

Oro har, ikusi dugu praktikotasun mailak hizkuntza baten edo bestearen erabilera-ekin lotura duela, bereziki, irakaslearen egiteko moduak aldatzen direlako ikasgai baten edo bestean. Praktikotasun maila, beraz, ez da berariaz ikasgaiarena, baizik ikasgaia ulertu eta bideratzeko moduarena. Adierazi dugu ikasgaiaren praktikotasun mailatik harago, testuinguruaz aztertu eta tipologizatzeak lagun liezagukeela hizkuntzaren erabilerari buruzko galderak erantzuten. Ikasgai guztietan, gutxi-gehiago, sortzen dira testuinguru formalak eta informalak. Hain zuzen, testuinguru horietan bereizten da, euskararen edo gaztelaniaren erabilera. Testuinguru formalak eraikitzen dira irakaslearen presentzia eta erregulazioa handiagoa den kasuetan eta arloaren ezagutza-prozesua erregulatzen den uneetan; egoera horietan erabiltzen da gehiago euskara. Aldiz, testuinguru informalagoak eraikitzen dira kirol jarduerari edo jardura askeagoei lotuta (talde lan kooperatiboak, jardura askeagoak, musika eta plastika alorreko jarduerak...), irakaslea ikasleengandik urruntzen den egoera horietan; halakoetan hitz egiten da gehiago gaztelania edo sortzen dira interferentziak. Testuinguruaren formaltasun mailak baldintzatzen du, beraz, hizkuntza baterako edo besterako hautua.

Hizkuntza erabilerari erreparatu diogunean, aldiz, ikasgaia modu praktikoa edo teorikoagoan eraikitzeak ere ez du baldintzatzen erabilera maiztasuna. Kirol jardueratan irakaslearen kontsignak jarraituz gauzatzen da jardura, eta une horretan ikasleak isilik egoten dira. Jardura askeagoak proposatzen direnean, orduan hitz egiten dute gehien. Hala, ikuspegi honetatik ere ondorioa da testuinguru informalago edo formalagoak eraikitzeak eragin dezakeela hizkuntza erabilera maiztasunean. Ikusi dugu zein den testuinguru bakoitzeko hizkuntza hautua: egoera formalagoetan euskarak presentzia handiagoa dauka, baina baita isiltasunak ere; ikasleen parte hartze eta ekoizpen kopurua ez da handia. Testuinguru informaletan, aldiz, euskararen presentzia gutxitzen da nabarmen, baina ikasleen parte hartzea eta enuntziatu kopurua askoz handiagoa da.

Zer gertatzen da ikasgelan edo gure geletan hizkuntzarekin? Kode baten edo bestearen presentziaz hitz egiten dute irakasleek. Handik haragoko gogoetan, aldiz, ez da sakontzen. Ikasleen hizkuntza gaitasuna, arloaren eta hizkuntzaren arteko loturak, ikasleen hizkuntza portaerak, komunikazioaren nolakotasuna... gisa horretako zehaztapenak oso txikiak dira hizkuntza irakasle ez diren irakasleengan. Irakasle gisa ikasleen parte hartze kopuruan eta parte hartzeko garaian sortzen diren enuntziatuen erregulazioan izan dezaketen ardura eta aukeren azterketan ere oraindik urrun sumatu ditugu irakasleak. Aurrera begira, formazioan eta ikerketan sakondu beharreko gaia izango litzateke.

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

9 HITANOIA SUSTATZEKO PROIEKTUA:
AZPEITIA ETA ZUMAI A

Zuzendaria: Josune Zabala

Koordinatzaileak: Josune Zabala (j.zabala@soziolinguistika.eus)eta Olatz Bengoetxea (o.bengoetxea@soziolinguistika.eus)

Partaideak:

Hitanoa Azpeitian:
Karmelo Etxegarai Ikastola,
Iraurgi Ikastetxea, Ikasberri
Ikastola, Urola Ikastola
Azpeitia-Azkoitia BHI.

Hitanoa Zumaian:
Oikiako herri eskola,
Maria eta Jose ikastetxea,
Zumaiaiko herri eskola,
Zumaiaiko institutua

2010. urtetik hona, hitanoa sustatzeko materiala sortzen, probatzen eta hobetzen jardun du SLK-k Azpeitiko eta Zumaiaiko ikastetxe guztietako irakasleekin elkarlanean. Lau urte hauetan zehar egindako bidearen azken emaitza aurkeztu da 2015ean: hitanoa ikasgelan lantzeko material sorta bat: 12 material didaktiko herri bakoitzeko hitanoaren erabilera sozialak ezagutu, hitanoa darabiltengana hurbildu eta erabiltzen hasi edo jarraitzeko.

Hitanoaren erabilerak euskararen erabileran eta ezagutzan izan lezakeen eragin baikorraz jabetuta ekin zitzaion egitasmo honi orain dela lau urte. SLKren egitekoa izan da materiala sortu eta irakasleen proposamenak kontuan hartuz, herri bakoitzeko beharretara egokitzea. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarteko zumaia eta azpeitiar gazteentzako prestatutako materiala da. Maila bakoitzerako bi material egin dira, herri bakoitzeko ezaugarri eta errealitatera egokituta, bertako erreferentzia idatzi eta ahozkoekin. Material didaktikoan egiten dira erregistro honen ezaugarri sozial eta komunikatiboetan murgiltzeko proposamenak, norberaren esperientzia eta ezagutzetatik abiatuz eta komunikazio egoera errealak eraikitzeke proposamenak eginez. Ikasleak jartzen ditu komunikazio egoera honen inguruko gogoetak eginez: noka eta tokaren erabileraren arteko aldeaz, edo hitanoak herri mailan duen prestigioaz jabetzen, adibidez. Halaber, komunikazio praktika errealak egiten dira hika ahalik eta modurik erakargarrienean egiten hasi edo jarraitzeko. Hemendik aurrera eta datozen lau urteetan jarraitu egingo da ikastetxeetan materiala probatzen eta SLK-k segimendua egingo dio bidean eraikitzen denari.

Babesle eta
laguntzaileak:



Zumaia Udala

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Soziolinguistika Klusterraren egitekoen artean soziolinguistikari bu-
ruzko ezagutza zabaltzea dago. Horregatik, soziolinguistika arloko
ezagutza gaur egun kudeatzen duten erakundeekin, ikerlariekin eta
adituekin **elkarlanean** egingo dugu ezagutza-fluxu eta sare horiek
ezagutzeko eta lantzeko.

Helburu horrekin honako bitarteko hauek erabiltzen ditu Soziolin-
guistika Klusterrak, besteak beste: **jardunaldiak, mintegiak, topake-
tak eta praktika komunitateak, argitalpenak, formazio saioak eta
interneteko tresnak**, alegia, webgunea, sare sozialak eta soziolin-
guistika telebista.

1 BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euskararen berreskurapen- eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolin-
guistikan eta glotopolitikan jantzea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu
nagusia. Horretarako, Euskal Herriko soziolinguistika-arloko ekarpen esanguratsuak
biltzen ditu, eta atzerriko hainbat lanen berri ematen.

BAT aldizkariako argitalpen batzordeko kideak Iñaki Martínez de Luna, Estibaliz Amo-
rortu, Inma Muñoa, Jone Miren Hernández, Lionel Joly, Maria-Jose Azurmendi eta
Pablo Sotés dira. Horien artean, BAT aldizkariaren zuzendaria Iñaki Martínez de Luna
da.

BAT aldizkariak 2015. urtean honako zenbakiak argitaratu dira:

• BAT 94 zenbakia: Euskararen transmisioaren molde berriak

- Paula Kasares: *Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga*
- Jone Miren Hernández: *Familia hizkuntza-politika: Transmisioa ulertzeko ere-
du berri baten bila*
- Pello Jauregi: *Gaurko gazteak, biharko gurasoak*
- Iñaki Eizmendi: *Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohiture-
tan eragitera bideratutako eredu baten azalpena*

GUREAN atalean

- Beñat Garaio: *"Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den": Gasteizen 1950-1975
garaitik hona, euskarak izan duen euskararen bilakaeraren inguruko testigan-
tzak.*



PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA




• BAT 95 zenbakia: Lurraldearen eta hizkuntzaren arteko loturak

- Itxaso Olaizola: *Hizkuntza-ekologia paradigma: ekologiaren begirada hizkuntzen babeserako*
- Iñigo Urrutia: *Euskarazko udal jarduerak ba al dute lege babes eraginkorrik? Normalizazio eredu berri baten bila*
- Iñaki Iurrebaso: *Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan. EAE, 1981-2011*
- Imanol Esnaola: *Udalerri euskaldunen bilakaera sozioekonomikoaz*
- Unai Fernandez de Betoño: *Paisaia-politika ezarri berriaren aukeraz*
- Zigor Etxeburua, Mertxe Mugika: *Gipuzkoako foru aldundiaren hizkuntza politikaren ebaluazio soziala: eragileen parte hartze kritikoa sustatu eta eskubiak bermatzeko ereduak*
- Zigor Etxeburua, Maren Belastegi: *ELE - Eragin linguistikoaren ebaluazioa*
- Arritxu Zelaia, Goizane Arana: *Tolosaldeko Lurraldearen Zatik Planaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Kasu praktiko bat*

MUNDUKO SOZIOLINGUISTIKAREN LEIHOA

- Beñat Garaio: *Nola ikusten dute euskararen biziberritzea atzerrian? Hizkuntza gutxituekin diharduen unibertsitate baten kasua: SOAS unibertsitateko HRELP egitasmoa*



• BAT 96 zenbakia: Ahozko komunikazioa eskolan

- Ines García-Azkoaga: *Ahozko hizkuntza, ikerketarako unibertso bat*
- Karmele Perez Lizarralde eta Agurtzane Azpeitia Eizagirre: *Unibertsitatea eta eskola elkarrekin ahozko hizkuntzaren didaktika lantzen: praktika eta bide berriak eginez*
- Josune Zabala Alberdi: *Tolosa. Ahozko laborategia. Lau urteko esperientzia DBHko ikasgeletan*
- Esther Mugertza Imaz eta Yolanda Olasagarre Mendinueta: *Nafarroako esperientziak euskararen irakaskuntzan*
- Kike Amonarriz Gorria: *Ahokotasuna soziolinguistikaren behatokitik*
- Mikele Aldasoro Agirrerri elkarritzeta Josunek: *"Ikasleari komunikatzeko behar dituen tresnak ematea dagokigu. Arlo ezberdinetatik, gainera" elkarritzeta.*

GUREAN atalean

- Naiara Berastegi, Jone Goirigoizarrri, Ibon Manterola, Gorka Salces, Xabier Landabidea: *Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: normalizaziorako ga-koak*
- Maria-Jose Azurmendi: *Esker ona WILLIAM F. MACKEY eta JOSHUA. A. FISHMAN soziolinguistei*

• BAT 97 zenbakia: VIII. Euskal Soziolinguistika sariak

- Xabi Aizpurua Ugarte: *Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia*
- Jaime Altuna Ramirez: *Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak etahizkuntz mudantzak nerabezaroan*

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA



- Haritz Etxeberria Bereziartua: *EAEko gehiengo euskalduna duten udalerriak epaitegi erdaldunetan*
- Mikel Ozaita Azpiroz: *"Machirulo/kosmopaletto, puta/cashero" - Euskararen aurkako diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada Mugimendu Feministaren teoria eta praktiken iturrietatik*
- Iñigo Igartzabal Bidegain: *Jarreretatik Portaerak ulertu nahian*
- Alexander Aginagalde Lopez: *Etxepare Institutuaren irakurletzak atzerriko unibertsitateetan. Euskararen kanpo zabalkundeari egiten dioten ekarpena eta hizkuntzaren nazioarteko irudian duten eragina*

MUNDUKO SOZIOLOGIA SARIEN LEIHOA:

- Beñat Garaio: *Hizkuntza gutxituen bizi-indarra neurtzen duten eskalak aztertzen: euskararen eskala bat osatzeko proposamenak*

Soziolinguistika Klusterrak BAT aldizkarian argitaratu diren artikulu guztiak bere webgunean (www.soziolinguistika.eus) irakurlearen eskura jartzen jarraitu du. Aldizkariaren edukiak artikuluka jaisteko aukera eskaintzen zaio irakurleari. Azken lau zenbakiak dira bertan agertzen ez diren bakarrak; horiek paperezko bertsioan eskura litezke. Azken lau zenbakien izenburuak eta laburpenak webgunean ikusgai jartzea izan da aurtengo beste berrikuntza bat.

2 HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.urang@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sariak egitasmoaren helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da.

Aipatu helburuarekin, lehiaketarako kontuan hartu dira euskararen gaineko berrazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako gerapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertze eta ulertze egokitzapenak.


Horrenbestez, diziplina zientifiko ezberdineko irakasle, ikertzaile eta adituei eskatu zaie, euren ezagutzen eta landu dituzten hurbilpen teorikoetatik soziolinguistikarainoko jauzia egiteko ahalegina; alegia, nahi edo hobesten duten hurbilpen eta ikuspuntutik abiatuta zer esan daiteke hizkuntzen - euskararen/erdaren- kasura aplikatuta.

Proiektu honetako kalitatearen berma nagusiak bi izan dira. Batetik, proiektuaren bultzatzailea den Soziolinguistika Klusterraren ibilbidea. Bestetik proiektu honen kalitate eta garapenaren kontrolaren ardura izango duen batzordea. Batzorde honetan, arloaren ezagutza zabala eta frogatua duten Bat Soziolinguistika Aldizkariko argitalpen batzordeak esanahi berezia izan du. Baina alboan izan ditu herri administrazioako aditu ezagunak

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

2015 -VIII HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien emaitza

Epai-mahaiaren arabera honakoak izan dira 2015eko sariak jaso dituzten lanak eta egileak



- Lehen saria

Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerrri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnasguneen ideia
Egilea: Xabi Aizpurua Ugarte

- Bigarren saria

Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan
Egilea: Jaime Altuna Ramirez

- Hirugarren saria

EAEko gehiengo euskalduna duten udalerrriak epaitegi erdaldunetan
Egilea: Haritz Etxeberria Bereziartua



Xabi Aizpurua (I. Saria)

Sari-banaketa ekitaldia 2016ko urtarrilaren 29an egin da, Donostiako San Telmo Museoan.

Interneteko www.soziolinguistika.eus/hausnartu helbidean eskura daiteke proiektu honetako informazio osagarria eta sari-banaketan eginiko aurkezpenak

3 FORMAZIO SAIOAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziolinguistika.eus)

Soziolinguistikaren inguruko hainbat formazio saio eman dira 2015ean:

- Bergaran bideratzen ari garen BERBEKIN programaren harira formazio saioak eman dira ikastetxeetan ahozko hizkuntzaren esku hartzearen gainean.
 - Mariaren Lagundia ikastola
 - Ipintza institutua
 - Aranzadi ikastola
- Ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan sustatu eta praktikan jartzeko formazioak eman dira IRALE bitartez. Hiru ikastaro eskaini eta ematen dira EAEn:
 - H401: Ahozko konpetentziak ikastetxean. Oinarriak eta baliabideak.
 - I: Ahozkotasuna irakasteko metodologia eta baliabideak.
 - H409: Ahozko hizkuntzaren lanketak hizkuntza normalizazioaren aldtotik.
- Ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan sustatu eta praktikan jartzeko formazioak eman dira, bestalde, BERRITZEGUNEETAKO aholkularientzat: Abandoko, Barakaldoko, Sestaoko, Txurdinagako eta Lasarteko Berritzeguneetan.
- HUHEZlrekin lankidetzan eman dira ikastaroak testuinguru eleanitzetako ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaz.
- EHUn, udako ikastaro bi antolatu dira:
 - Ahozko komunikazioa eskolan.
http://www.soziolinguistika.eus/ahozko_komunikazioa_eskolan
 - Koldo Mitxelenaoren eta Ramón Piñéiroren ekarpenak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzarekin.
http://www.soziolinguistika.eus/mitxelena_pineiro
- UEUn ikastaro bat antolatu da:
 - Lurraldea eta hizkuntzari buruzko formakuntza saioa
- Eralan3 eta Alkarbide.
- Nazioarteko formazioa: Bangorreko Unibertsitatean Aldahitz proiektua aurkeztu zen 2015eko abenduaren 3an *Turning passive speakers into active speakers* nazioarteko simposiumean. Kutxa Fundazioaren laguntzarekin.
- Bazkideentzako mintegia: urtarrilean, Hausnartu sarien banaketarekin batera hainbat proiektu aurkezteko mintegia egin zen Donostian.

Babesleak:



PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Klusterraren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko eginbehera, eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrenetakoa.

Soziolinguistika Klusterrak bere webgunea garatu du helburu hauekin:

1. helburua: Soziolinguistika Klusterraren komunikazio korporatiboa www.soziolinguistika.eus webgunearen aurkezpena, lan arloak, albisteak, soziolinguistikaz eta lankidetzaren atalen, Facebook orrialdearen eta Twitter sare sozialaren bidez.
2. helburua: soziolinguistikaren eremuko ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuen Internet bidezko zabalkundea intentsuagoa, egunerokoagoa eta irisgarritasun handiagokoa izan dadin gure eduki-sormen lana izango da ardatz eta www.soziolinguistika.eus webgunearen proiektuak atalaren, Facebook orrialdearen eta Twitter sare sozialaren bidez.
3. helburua: Soziolinguistika Telebista kanalean, proiektuetatik eratorritako multimedia edukiak zintzilikatzea.

4 AZPIMARRA saioa (ETB1)

Urtean zehar Soziolinguistika Klusterrak kolaborazioak egin ditu EITB1-eko Azpimarra saioan, bai Klusterrak burutu dituen proiektuen inguruko aurkezpenak eginez, bai eta saiorako gaiak proposatuz ere.

Soziolinguistika Klusterrak lankidetzan jardun du ETB-1eko Azpimarra saioarekin, 2015/2016 denboraldian. Helburua izan da hizkuntza eta bereziki euskara kontuetan, ikuspegi sozial batetik interesgarriak diren gaiak eta hizlariak eramatea, helburu pedagogiko/informatibo batekin. Soziolinguistika Klusterraren helburuetako bat soziolinguistika ezagutza gizarteratzea da eta ikusi da bitarteko egokia dela horretarako Azpimarra saioa.

Ondokoak izan dira 2015ean elkarlanean egindako saioak:

1. ALDAHITZ ikerketa: Pello Jauregi eta Pablo Suberbiola
2. GARABIDE elkarte: Andoni Barreña eta Maddi Iñarra
3. Diskurtso berria: Iñaki Martinez de Luna
4. "Hiztunpolisa" liburuaren aurkezpena: Jon Sarasua
5. "Sortir de l'ármari lingüístic" Ferran Suai eta Gema Sangines-en liburuaren aurkezpena: Juanjo Ruiz eta Olatz Olaso
6. Hizkuntzaren sozializazioa: Paula Kasares



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTERA

2015eko MEMORIA